# BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA / PARTAIDEAREN ORRIA / ERREKLAMAZIOAK

Langileak Kudeatzeko Zuzendariak, 2024ko uztailaren 16ko Ebazpenaren bidez, **behin-behinekoz** ebatziko du, 2024-2025 ikasturte-hasierako esleipen-prozesua, **karrerako funtzionarioei eta langile lan-legepeko finkoei** dagokienez.

**Esleitutako lanpostuen eta pertsonen zerrendak** ondoko lekuetan egongo dira ikusgai: **Hezigunean**, eta Hezkuntza Sailaren **web-orrian**.

## IRAKASLEGUNEAN DAGOEN APLIKAZIORA SARTZEKO

**Jo** https://hezigunea.hezkuntza.ejiedes.net/eu/inicio **helbide elektronikora**.

Zure erabiltzailea eta pasahitza sartu eta gero, sakatu "Sarrera sinadura"




Aukeratu "Eremu pertsonala" / "Izapideak langileen sailarekin" / "Ikasturte hasierako esleipena".
Prozeduraren beraren pantailara zuzenean sartuko zara.

## PARTAIDEAREN ORRIA

Esleipena ebatzi ondoren eta parte-hartzaile guztien eskaerak egiaztatu eta gero, eskabidearen laburpena lortu ahal izango duzu, "PARTAIDEAREN ORRIA" lotura erabilita. Aukera hori eskaera-epean eskaeraren bat sartu zuten pertsonek soilik izango dute.




Bertan, **parte hartzeko baldintza errealak** jasotzen dira, hots, zer eskaera eta aukera onartu diren eta zeintzuk baliogabetu diren. Eskaera bakoitzaren egoera lerro bakoitzaren amaieran dagoen zutabean agertzen da.

**Baliogabetutako eskaeretan E marka** azaltzen da. Akats moduan azalduko dira zure eskaerak, baldin eta horietan klaseak emateko baldintzak betetzen ez badituzu edo beste edozein arrazoi dela-eta inkoherenteak badira edo sistemak onartu ezin baditu.




ESKAERAK: IKASTETXEKO LANPOSTUAK ESLEITZEKO FASEA: IES SAN IGNACIO BHI

| Zk. | Plaza | Ikasgaia | HE | Derrigortasuna | Ibil. | Berezia | Ego. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 38118 | 203 EUSKARA ETA LITERATURA | 1 | A | 1 | N | |
| 2 | | 203 EUSKARA ETA LITERATURA | 1 | | | | |
| 3 | 47965 | 210 GAZTELANIA ETA LITERATURA | 2 | B | 1 | N | E |
| 4 | 38121 | 222 CURRICULUM ANIZTASUN SOZIOLING. | 2 | B | 1 | N | E |
| 5 | | 281 EUSKARA (DBH 1-2) | 2 | | | | |
| 6 | 35536 | 281 EUSKARA (DBH 1-2) | 2 | B | 1 | N | |

## ESLEIPEN-EMAITZA ZELAN IKUSI

Esleipen-emaitza ikusi ahal izango duzu, lotura hauek sakatuta:

- "ESLEIPEN-ZERRENDA OROKORRA": esleitutako lanpostuen eta pertsonen zerrenda osoa ikusi ahal izango duzu.

- "NORBERARI ESLEITU ZAION LANPOSTUA IKUSTEKO": sistemak azalduko dizu zein lanpostu esleitu zaizun eta lanpostuaren ezaugarriak:




## BEHIN-BEHINEKO EBAZPENAREN KONTAKO ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEA

Azkenik, behin-behineko ebazpenaren aurkako erreklamazio bat ere aurkeztu ahal izango du formulario bidez, **2024ko uztailaren 16ko 14:00etatik 2024ko uztailaren 17ko 12:00etara**.

Behin Hezigunean identifikatuta, zure eremu pertsonala ikusiko duzu, eta handik sartu ahal izango zara **erreklamazio-formulariora**:

